

UDAL GARDENTASUNA
abian jartzeko eta
kudeatzeko
ESKULIBURUA

EUDEL

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

Honako gida hau Gardentasunaren aldeko Euskadiko Udalen Sareak egindako jarduera bat da, Tokiko Berrikuntza Agendaren barruan (TBA/AIL)

“UDAL GARDENTASUNA abian jartzeko eta kudeatzeko ESKULIBURU”

Koodinazioa eta edizioa: **EUDEL**

Diseinu grafikoa eta maketazioa: **ARRIN**

Lantzea: **2014ko martxo**

Aurkibidea

1. Sarrera eta helburuak	4
2. Eskuliburuaren egitura	7
3. Gardentasuna abian jartzea	11
4. Udal Gardentasunaren kudeaketarako AGINTE-KOADROA	16

1. Sarrera eta helburuak

Gardentasuna EUDELeko lan-ildo estrategikoetako bat da. Udal erakundeen erronka handienetako bat suposatzen du, berrikuntza eta modernizazioarekin batera. Eginkizun horretan, udalak luzaroan ibili dira lanean Tokiko Berrikuntza Agenden (TBA) bitartez. Gardentasuna hurrengo urratsa izanik, herritarrengandik hurbil egoteko, hobeto kudeatzeko eta udal politikaren jardura legitimatzeko aukera handia da.

Eta ideia hori herritarrek herri-erakundeak oro har, eta udal erakundeak bereziki, irekiagoak izateko egindako eskari gero eta handiagoak datorkigu. Aurrekoari gehitu behar dizkiogu 2013ko azaroaren 28an onartutako Gardentasunari, Informazio Publikoari eta Gobernu Onari buruzko Legeak ezarritako obligazio berriak.

Legea betearazteko epeei dagokienez, Gobernu Onaren Kodeari dagokien alderdia indarrean hasi da dagoeneko BOEn 2013ko abenduan argitaratu ondoren. Hala ere, Gardentasunari eta Informazioari dagokion atalaren ezarpena 2014ko abendura arte atzeratuko da.

Arau-esparru berri honetan, EUDELek 2013ko hasieran **Gardentasunaren aldeko Euskadiko Udalen Sarea** sortu zuen, guztion interes eta beharrezanetan oinarritutako estrategia bateratua diseinatzeko esparru gisa, udalak berritzaileagoak eta gardenagoak izate aldera.

Udal gardentasuna sustatzeko sareko jardueraren ikuspegiaren barruan bi udal mota bereizten dira, gai honetan emandako denbora-tartearen arabera. Jardura honetan bide luzeagoa egin duten udalek **elkarlana hobetzea** bilatzen dute, besteak beste, honako gaietan elkarrekin hobetzen jarraitzeko: kudeaketari buruzko gardentasuna (zerbitzuen ebaluazioa, eraginkortasunari buruzko adierazleak...), gardentasunari buruzko herritarrekiko elkarriketa, open data, etab... Jardura honetan bide laburragoa egin duten udalentsat, **elkarlanean hastea** sustatzen du, arlo honetan sinergiak aprobetxatzeko, batez ere, sentsibilizatu, trebatu eta aholkularitza emateko jardueren bitartez.

Sarearen dauden udalen kolaborazio eta elkarlanaren ondorioz, Euskadiko Udalen eskura jarri diren bi **material erabilgarri** sortu ziren 2013ko lehenengo seihilekoan.

— **“Gardentasuneranzko Bide Orria”**, Udal gardenagoa lortzeko garatu beharreko strategiaren definizioa barne hartzen duena.

— **“70 Praktika On udal gardena lortzeko”** katalogoa, erreferentziazko esperientziak biltzen dituena, gardentasunaren arloan ibilbide laburra duten udalek arlo horretako eremuetan aurrera egitea ahalbidetzen dieten erreferentziazko ereduak izan ditzaten.



Material horien laguntzaz, Euskadiko udal askok gardentasunaren arloan hobetzeko estrategia zehaztu dute dagoeneko. Puntu horretara helduta, eskuliburu bat edukitzea beharrezkotzat ikusi da. Eskuliburu horrek Udalei honako hau jakitea ahalbidetuko die: Gardentasuna **martxan jartzeko eta gero eta gardenagoak** izateko **ZEIN JARDUERA ZEHATZ** abiarazi behar dira eta **ZEIN DIRA** gardentasunaren **iraunkortasuna** lortzeko **egunero** eman behar diren **BERARIAZKO URRATSAK**.

Horregatik, “**Udal gardentasuna abian jartzeko eta kudeatzeko eskuliburu**” honek material erabilgarria eskaini nahi du, udalek gardentasunak eskatzen dituen beste erronketako bati heldu diezaioten:

Gardentasunean **SINESTETIK** eta arlo horretako estrategia argia **IZATETIK** gardentasunak dakartzan tresnak **ARRAKASTAZ ABIARAZTERA** eta, denborak aurrera egin ahala, horiek mantendu eta hobetzera pasatzea.


2. Eskuliburuaren egitura

Eskuliburua, gardentasuna ezartzeko erabakia hartu ondoren, udal batek bi une ezberdinetan garatu behar dituen ekintza zehatzak oinarri hartuta egituratu da:

- Udal gardentasuna **abiaraztea**, hau da, “gardenak izaten hastea”.
- Udal gardentasuna **kudeatzea**, hau da, “gardentasuna bizirik mantentzea”.

Eredua udalek gardentasun maila handia lortzeko herritarrei eman behar dieten informazioa argitaratu eta etengabe eguneratzeko lanean datza. Horretarako, AGINTE-KOADRO bat landu da (Eskuliburu honetako 4 kapituluak), udalei gardentasuna abiaraztea eta kudeatzea ahalbidetzen dieten ekintza zehatzak dituena.

Aginte-koadro horren **egituraketak** honako elementu hauek barne hartzen ditu:



1. JARDUTEKO EREMUAK

Ekintzak **12 gai handitan** edo jarduteko eremutan antolatuta daude: “Gardentasuneranzko Bide Orrian” jada zehaztu diren eremuak eta berri bat: “Partaidetza gardena”.

“Partaidetza gardena” herritarren partaidetzari lotutako informazioaren argitalpena da, eta horren barnean “Partaidetza egituratua” eta “Berriazko proiektuetako partaidetza” daude.

- **Partaidetza egituratua:** udalak modu egituratuan bultzatu eta garatutako partaidetzaren jardura barne hartzen du, adibidez, partaidetza- organoak badaude, haien aktak argitaratzea.
- **Berriazko proiektuetako partaidetza:** herritarrek egindako ekarpenei lotutako informazioa argitaratzean datza, bai indarreko araudiaren arabera herritarrek parte hartzeko prozesuak egitea ezinbestekoa denean, edo baita, herritarren partaidetza borondatez deitzen denean ere, adibidez, hirigintzan, aurrekontuetan eta abarretan.



GARDENTASUNAREN KUDEAKETA EREMUAK

1. Kargudun hautetsiak eta konfiantzazko kargudunak
2. Langileria eta udal antolaketa
3. Herritarrekiko harremanak
4. Udal plangintza
5. Ekonomia eta finantza informazioa
6. Kudeaketaren eraginkortasuna eta efikazia
7. Kontratazioa
8. Hirigintza eta herri lanak
9. Open Data
10. Udal araudia eta erabakiak
11. Partaidetza gardena
12. Gardentasunaren konpromisoa, hedapena eta komunikazioa

2. LEHENTASUN MAILA

Eskuliburu honetako 4 kapituluak proposatzen den koadroak **garatu beharreko ekintzen lehentasun-maila** ezartzeko aukera ematen du. Horretarako, aginte-koadroak zutabe bat du, ekintza bakoitzerako kolore bat gehitzen duena. Horrela, udaletarako eskuliburu gisa erabil daiteke. Alde horretatik, Gardentasunaren Lege berria beren beregi zehaztutako ikuspegiak baino asmo handiagoa duen batetik ekingo zaie garatu beharreko ekintzei.

Sailkapen bat ezarri da: alde batetik, Gardentasunaren Lege berria indarrean sartzearen ondorioz eskagarria izateagatik ekintza zehatza gauzatu beharrenden derrigortasunari erantzuten dio (1. MAILA), eta, beste aldetik, lege eskatzen ez diren ekintzak banatzen dira, horiek gauzatzeko erraztasun edo zailtasun mailaren arabera (2. eta 3. MAILAK). Kasu horretan, erraztasun edo zailtasun maila Gardentasunaren aldeko Euskadiko Udalen Sareak inkesten bidez egin dituen ekarpenetan oinarritzen da.

Horrela, ekintza bakoitza 3 mailatan sailkatu da:

- 1. MAILA:** Gardentasunaren Legea indarrean sartzearekin batera eska daitekeena.
- 2. MAILA:** Erraz egiteko modukoa. Epe laburrera eta ertainera egitea gomendatzen da.
- 3. MAILA:** Zaila. Epe ertainean eta luzean egin beharrekoa.

Euskadiko udalen errealitatea kontuan hartuta, komenigarria da aginte-koadroan aipatutako ekintzetako asko aspalditik gauzatzeko direla adieraztea, informazio zehatz bat argitaratu beharra aurretik dagoen sektoreko araudiak baldintzatzen baitu.

Bestela esanda, udalek indarreko legeek ezartzen duten informazioa argitaratzen dute hainbat baliabideren bidez, adibidez, aldizkari ofizialaren edo iragarki taularen bidez. **Orain asmoa informazio hori udalaren webgunean argitaratzea da.**

3. ARLO ARDURADUNA

Halaber, aginte-koadroak badu zutabe bat, garatu beharreko ekintza bakoitza gauzatzeko **ardura NORK DUEN** adierazten duena.

Arlo hori nekez zehatz daiteke, antolaketari buruzko erabakiak udal errealitate bakoitzaren berezkoak baitira. Gogoeta errazteko, udal ertainen eta handien eredu egitura hartu da ekintzetako bakoitzaren udal arlo arduraduna ezartzeko erreferentzia gisa, askotan ekintza horretaz arduratu litezkeen hainbat arloren alternatibak eskainita. Gomendagarria izango litzateke informazioa koordinatzeko eta biltzeko arduraduna pertsona bakarra izatea. Nolanahi ere, **beharrezkoa izango da udal bakoitzak aginte-koadroa bere errealitate partikularrera egokitzea.**

4. NAZIOARTEKO GARDENTASUN ADIERAZLEEKIKO LOTURA

Gardentasunaren aldeko Euskadiko Udalen Sareak unera arte garatu duen lanean, argi geratu da Nazioarteko Gardentasuna erakundeak “Udalen Gardentasun Adierazlea” prestatzeko erabili dituen adierazleak ez direla irizpide bakarra, udal gardentasunari heltzeko eta hori neurtzeko orduan. Hala eta guztiz ere, udalei aginte-koadroko ekintza bakoitza adierazleekin identifikatzen laguntzeko asmoz, ITA adierazlearen zenbakia duen zutabe bat du.

5. INFORMAZIOA EGUNERATZEKO ALDIZKAKOTASUNA

Zutabe bat gehitu da garatu beharreko ekintza zehatzak **eguneratzeko** iradokitzen den aldizkakotasunari buruz. Adibidez, ekintzen artean badaude **urtean behin** egin beharko liratekeenak, **hilero edo hiru hilean** behin egin beharko liratekeenak eta **etengabe** landu behar direnak, besteak beste. Ekintzak gauzatzeko arlo edo pertsona arduratsuen zehaztapenean gertatzen den bezala, udal bakoitzak ekintza bakoitzaren aldizkakotasuna zehaztu, eta hori betetzen dela egiaztatu beharko du.

6. GARDENTASUNAREN LEGEAREKIKO LOTURA

Amaitzeko, iruzkinak gehitu dira, ekintza zehatz bat zuzenean ukitzen duen **Gardentasunaren Legearen artikuluari edo artikuluei** lotuta.

3. Gardentasuna abian jartzea

Udal batek Udal Gardentasuna abiarazteak Gardentasunaren hobekuntzari lotutako funtsezko bi alderi buruzko alde zuzeneko gogoeta egitea dakar: 1) udalaren eta herritarren arteko gardentasunaren arloko harremana arautuko duten oinarriak zehaztea eta 2) udalaren webgunea prestatzeko modua. Badago baloratu edo erabaki beharreko hirugarren aldea: argitaratutako informazioaren iraunaldia.



1. UDALAREN ETA HERRITARREN ARTEKO GARDENTASUNAREN ARLOKO HARREMANA ZEHAZTEA

Udal Gardentasunaren hobekuntzak udalaren eta herritarren arteko harremana handitzen lagundu behar du, bien arteko solaskidetza arina ezarrita.

a) Herritarrekiko KOMUNIKAZIO-BIDEAK zehaztea, gardentasunari dagokionez

Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gauzatzeko herritarrekiko komunikazio bide nagusia **udalaren webgunea** izango da, baina, horrez gain, online bideak erabiltzeko ohitura ez duten herritarrei informazioa eskuratzen laguntzen dieten beste bide batzuk ezartzeko aukera proposatu beharko da. Horretarako, erabaki beharko da zein diren erabili beharreko bideak, adibidez, udal zentroetako, kultur eta kirol instalazioetako eta abarretako **postontzi fisikoak eta udalaren iragarki-taulak**.

Halaber, **herritarrekiko topaketa-foroak**, orokorrak eta etengabeak zein berariazkoak, antolatzea komenigarria den erabaki beharko da, arlo eta proiektu zehatz batzuei dagokienez gardentasuna sustatzeko.

b) Informazio publikoa ESKURATZEKO ESKUBIDEA: berau BIDERATZEKO jarraitu beharreko prozedura zehaztea

Udalaren eta herritarren arteko komunikazio-bide gisa herritarrentzako postontziak (birtualak zein fisikoak) ezartzeak informazio-eskaerak, kexak eta iradokizunak bideratzeko jarraitu beharreko prozedura zehaztea dakar berekin.

Gardentasuna abiaraztean udalak erabaki behar dituen eremu nagusiak honako hauek dira:

- **Informazio-eskaerei** erantzuteko jarraitu beharreko prozedura:
 - Informazio-eskaerei **erantzuteko denbora** ezartzeko konpromisoa: Gardentasunaren Legeak ezarri du informazioa eskuratzea baimendu edo ukatzen duen ebazpena jakinarazteko gehieneko epea hila-betekoa dela, baina udal bakoitzak epe laburragoa ezarri ahalko du bai arauz bai kudeaketa-konpromisoaren bidez.
 - Bideratzearen **pertsona edo organo arduraduna**.
- **Kexei eta iradokizunei** erantzuteko jarraitu beharreko prozedura:
 - Kexei eta iradokizunei **erantzuteko denbora** ezartzeko konpromisoa.
 - Bideratzearen **pertsona edo organo arduraduna**.
- Herritarren kexa eta iradokizunetatik ondorioztatutako **beharrezko hobekuntzak** barnetik zehaztu eta ezartzeko prozedura.

c) Udalaren gardentasunarekiko konpromisoa

Udal batek gardentasuna abian jartzeko, erabateko konpromisoa izan behar du. Arlo praktikoan, erabaki horrek **antolakuntza mailan inplikazioak dituen zeharkako ikuspegia** hartzea esan nahi du: kultur aldaketa, prozesuen aldaketak eta antolaketa-eredua bera aldatzea.

Beraz, gardentasuneranzko bideari ekiteko lehenengo urratsa hori egiteko **borondate edo erabaki politikoa** da, konpromiso batzuk betetzea ekarri ohi duena:

Buruzagitza-konpromisoa:

- Udal erantzukizunak dituzten pertsona guztiek gardentasun-helburuekin bat egitea lortzeko bide egoiak ezarri eta ematea. Gardentasuna sustatzea, jokoaren arauak eta mugak zehaztea, konfiantza sortzea eta prozesuak eskatzen duen bitartekotza politikoko beharrianak estaltzea.

- **Erantzunkidetasun-konpromisoa:**

- Udal antolaketako pertsonak, bai kargudun hautetsiak bai teknikariak, erantzunkideak izan behar dira gardentasuneranzko bidean.

- **Konpromiso politikoa:**

- Gardentasuna Gobernu Ona lortzeko funtsezko balioztat jotzea.

Udal antolaketaren eta herritarren aurrean gardentasunarekiko konpromiso tinkoa adierazteko modu zehatzena **Gobernu Onaren Kode** edo **Gardentasunaren eta Gobernu Onaren aldeko Ituna** hartzea eta argitaratzea da. Printzipio programatikoetatik harantzago, **araudi testua** (ordenantza, dekretua, araudia) ere egin daiteke, gardentasunari euskarria ematen diona barne mailan.

2. WEBGUNEAREN PRESTATZEA

Webgunea prestatzeko orduan, herritarrei gardentasun-beharrizanei lotutako informazioa eskuratzen laguntzeko, udalak hori egituratzeko hainbat aukera izango ditu, bai publizitate aktiboko betebeharra bai herritarrek informazioa eskuratzeko duten eskubidea betetzeko.

a) “Udal Gardentasunaren Ataria”ren bidezko publizitate aktiboa

Informazioa modu argian, egituratuan eta herritarrek ulertzeko moduan argitaratu behar da. Horretarako erabilgaitako tresna udalaren webgunearen barnean “**Udal Gardentasunaren Ataria**” atala sortzea izango da.

Atal hori egituratzeko bi aukera daude :

- Informazio osoa argitaratzea, atari horren barnean Gardentasunak barne hartzen dituen gaien arabera antolatuta.
- Gaien zerrenda argitaratzea, udalaren webguneko beste atal batzuetan dauden edukietarako loturak dituen.

b) Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gauzatzea

Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gauzatu ahalko da bide ezberdinen bidez (birtualak edo fisikoak), baina gaur egun udalaren webgunea herritarrekin komunikatzeko bide nagusietako bat da. Horregatik, Udal Gardentasuna abiarazi aurreko gogoeta fasea une egokia da, herritarrekiko komunikazioa arintzea ahalbidetzen duten berariazko atalak webgunean ezartzea komenigarria den erabakitzeko.

Informazio eskaerak bideratzeko tresna nagusiak honako hauek dira:

1. Informazioa eskatzeko herritarrentzako postontzia
2. Kexak eta iradokizunak egiteko herritarrentzako postontzia
3. Udal webguneko bilatzaile orokorrak
4. Berariazko edukiak (udal araudia eta abar) eskuratzen laguntzeko bilatzaileak

3. ARGITARATUTAKO INFORMAZIOAREN IRAUNALDIA

Nahiz eta udal bakoitzak hartu beharreko erabakia den, udal webgunean honako informazio hau argitaratzea proposatu da:

- Indarreko informazioa
- Azken hiru urteetako informazio historikoa

Informazio zaharrenari dagokionez, udal webgunetik desagerraraztea proposatu da, nahiz eta dokumentuak artxibatzea gomendatzen den.

4. Udal gardentasuna kudeatzeko aginte-koadroa



- Gardentasunaren Legea indarrean sartzearekin batera eska daitekeena
- Erraz egiteko modukoa. Epe laburrera eta ertainera egitea gomendatzen da
- Zaila. Epe ertainean eta luzean egin beharrekoa

UDAL GARDENTASUNA KUDEATZEKO AGINTE KOADROA

JARDUERA EREMIJAK	GAIKAKO AZPIATALAK	NOLA - GARATU BEHARREKO EKINTZA ZEHATZAK	LEHENTASUN MAILA	NOR-UDAL SAIL ARDURADUNA	UDALEN GARDENTASUN INDIZEAREN (2014 UG) ERREFERENTZIA	EGUNERAKETAREN ALDIZKAKOTASUNA	GARDENTASUN LEGEAREN ERREFERENTZIA	IRUZKINAK
1. Gardentasuna hautetsi eta konfiantzako karguak dagokienez	1.1. Hautetsiei buruzko informazioa	1.1.1 Hautetsien zerrenda argitaratzea eta eguneratzea webguneko atal berezi batean		GIZA BALIABIDEAK	4 y 5	Aldaketa bat dagoen bakoltzean		
		1.1.2 Hautetsien zereginen fitxak argitaratzea eta eguneratzea		GIZA BALIABIDEAK	7	Aldaketa bat dagoen bakoltzean		
		1.1.3 Hautetsien harremanetarako datuak argitaratu eta eguneratzea		GIZA BALIABIDEAK	2	Aldaketa bat dagoen bakoltzean		
		1.1.4 Hautetsi berrien curriculum vitaeak sartzea (berririk egonez gero)		GIZA BALIABIDEAK	1	Aldaketa bat dagoen bakoltzean		
		1.1.5 Hautetsien ondusunen altopena argitaratu eta eguneratzea		GIZA BALIABIDEAK	76	Urtean behin		
		1.1.6 Udaleko goi kargudunek (gukienek, hautetsiek eta, hala behar denean, zuzendari nagusiek) eta udalak parte hartutako erakundeetako arduradun nagusiek urtero jasotako ordainsari buruzko informazioa argitaratzea eta eguneratzea (webguneko atalera zuzen eta berezi baten bidez)		GIZA BALIABIDEAK	74	Aldaketa bat dagoen bakoltzean		
		1.1.7 Karguak uztearen ondorioz jasotako kalte-ordainak argitaratzea		GIZA BALIABIDEAK	75	Balitzko hori ematen den bakoltzean		8. artikulua: Ekonomia, arretaren eta informazioaren buruzko informazioa.
		1.1.8 Gobernu, On eta Interes Garaztejarako Bulegoak edo (antzeko beste batek) arduradunen jarduerari pribatuari bateragarritasunari buruz egindako ebazpenak argitaratzea.		GIZA BALIABIDEAK	76	Aldaketa bat dagoen bakoltzean		
		1.2.1 Udaleko eta udal-erakundeetako konfiantzako langileen zerrenda argitaratzea eta eguneratzea, webguneko atal berezi batean		GIZA BALIABIDEAK	4 y 5	Aldaketa bat dagoen bakoltzean		
		1.2.2 Konfiantzako langileen zereginen buruzko informazioa argitaratzea eta eguneratzea		GIZA BALIABIDEAK		Aldaketa bat dagoen bakoltzean		
		1.2.3 Konfiantzako langileen urteko ordainsariak argitaratzea eta eguneratzea		GIZA BALIABIDEAK	5	Aldaketa bat dagoen bakoltzean		
		1.2.4 Konfiantzako langileen curriculum vitae berriak sartzea (horrelakorik egonez gero)		GIZA BALIABIDEAK		Aldaketa bat dagoen bakoltzean		
		1.2.5 Konfiantzako langileek kargua uzteagatik kobratutako kalte-ordain zehatzak argitaratzea		ALKATETZA/DIZKARITZA		Balitzko hori ematen den bakoltzean		
		2.1.1 Organo zuzendatzaileko arduradunak zein diren eta beren eginkizunak eta haien arteko mende-erlazioak gabeak harremanak zehazten dituen organograma gaurkotua argitaratzea eta eguneratzea		GIZA BALIABIDEAK	66	Urtean behin		
		2.1.2 Udaltaldeko eta udal-erakundeetako konfiantzako langileek (osoko hilkuraren, alderdi politikoen eta gobernuko batzarraren osara) argitaratzea eta eguneratzea (hala behar denean, barrutiko edo auzoko batzarrak barne)		GIZA BALIABIDEAK	7	Aldaketa bat dagoen bakoltzean		
2.1.3 Udal sail eta zerbitzuetako eginkizunak argitaratzea eta eguneratzea		GIZA BALIABIDEAK		Urtean behin				
2.1.4 Erakunde deszentralizatuen, tresna-izaera duten erakundeen eta udal sozietateen onarritako datuak nahiz hauen webguneetako estekak argitaratzea eta eguneratzea.		GIZA BALIABIDEAK / ZERBITZU OROKORRAK	8	Aldaketa bat dagoen bakoltzean				
2.1.5 Udaleko lanpostuen zerrenda argitaratzea eta eguneratzea, dauden konfiantzako karguak barnean adierazita (udalako horrelakorik ez batu, berantaz adieraziko da webgunean)		GIZA BALIABIDEAK	9	Urtean behin				
2.1.6 Udal Lanpostu Zerrenda edo Langileen Planifikazio argitaratzea eta eguneratzea erakunde deszentralizatu, tresna-izaera duten erakundeetan eta udal sozietateetan		GIZA BALIABIDEAK	9	Urtean behin		6. artikulua: Herri-erakunde, antolabide eta plangintzari buruzko informazioa		
2.1.7 Udal plantilaren banaketa sail eta zerbitzuen arabera argitaratzea eta eguneratzea		GIZA BALIABIDEAK		Urtean behin				
2.1.8 Erakunde deszentralizatu, tresna-izaera duten erakundeen eta udal sozietateen langileen planifikazio zerbitzu-sailen arabera argitaratzea eta eguneratzea		GIZA BALIABIDEAK		Urtean behin				
2.1.9 Udal langileei ezarri beharreko hitzarmena argitaratzea eta eguneratzea		GIZA BALIABIDEAK		Urtean behin				
2.1.10 Erakunde deszentralizatu, tresna-izaera duten erakundeen eta udal sozietateen langileei ezarri beharreko hitzarmena argitaratzea eta eguneratzea		GIZA BALIABIDEAK		Urtean behin				
2.1.11 Higiezin zerrenda argitaratzea eta eguneratzea (bulegoak, lokalak, etab.) hala udalarenak, nola alokatuta daudenak elai/edo udalari eta udal-erakundeetatik kanpoak		ONDAREAZERBITZU OROKORRAK	77	Urtean behin				
2.1.12 Ibilgailu ofizialen kopurua argitaratzea eta eguneratzea (udalarenak eta alokatutakoak), udalari eta udal-erakundeetatik kanpoak (bilgailuen zerrenda zehatza)		ONDAREAZERBITZU OROKORRAK	11	Urtean behin				
2.1.13 Batlo historiko-artistikoak zein baito ekonomiko handia duten udal ondasun higikorrak zerrenda argitaratzea eta eguneratzea		ONDAREAZERBITZU OROKORRAK		Urtean behin				
2. Gardentasuna langileriei eta udal antolabideari dagokienez	2.1. Udal langileria eta antolabidea							

JARDUERA EREMUAK	GAIKAKO AZPI TALAK	NOLA - GARATU BEHARREKO EKINTZA ZEHATZAK	LEHENTASUN MAILA	NOR - UDAL SAIL ARDURADUNA	UDALEN GARDENTASUN INDIZAREN (2014 UG) ERREFERENTZIA	EGUNERAKETAREN ALDIZKAKOTASUNA	GARDENTASUN LEGEAREN ERREFERENTZIA	IRUZKINAK
3. Herritarrekiko harremanen gardentasuna	3.1. Herritarrekiko harremanak	2.1.14	Udalaren zein udal erakundeen ondasun eta eskubideen inbentarioa argitaratzea eta eguneratzea	ONDAREZ ERBITZU ORKORRAK	12	Urtean behin		
		2.1.15	Udalaren Lan Eskaintza Publikoa eta bere garapena eta belearazpena argitaratzea (azken aldian horrelakorik izan ez bada, berriaz adieraziko da webgunean)	GIZA BALIABIDEAK	6	EPO		
		2.1.16	Udalari (auzi-arloan, lan-arloan, etab.) dagozkien ebazpen juridizialak argitaratzea (osonik edo hain edukitara josteko lortu a emanez), (f)orrelikorik izan ez bada, berriaz adieraziko da webgunean)	ALKATETZA	18	Urtean behin		
		3.1.1	Udalaren webgunean mapa argitaratzea eta eguneratzea. Azal-orrain udalaren web orriko mapa ikus daiteke	KALITATEA / HERRITARREN PARTE HARTZEA	21	Aldatzen den bakoltzean		
		3.1.2	Dauden Udal Zerbitzuen Gultuna eta horiei ezarritako konpromisoen beteetze-maila argitaratzea eta eguneratzea	KALITATEA / HERRITARREN PARTE HARTZEA	33	Zerbitzu-gutun berria prestatzen den bakoltzean		
		3.1.3	Herritarrek abiatutako prozedura administratiboan iramitazioaren egoera eta horiekin izandako gorabeherak argitaratzea eta eguneratzea	KALITATEA / HERRITARREN PARTE HARTZEA	24	Hilean behin		
		3.1.4	Herritarren keza eta iruzkinen kopurua eta ezaugarriak argitaratzea eta eguneratzea	KALITATEA / HERRITARREN PARTE HARTZEA		Hilean behin		
		3.1.5	Herritarrei egindako gogobetetasun-inkestien emaitzak (kuantitatibo zein kualitatiboak) argitaratzea	KALITATEA / HERRITARREN PARTE HARTZEA		Urtean behin		
		3.1.6	Udalaren webgunean gertatutako aldia (edo aldi berezia) egin da	KALITATEA / HERRITARREN PARTE HARTZEA	19	Urtean behin		
		3.1.7	Barneko biatzaldea dago, eta udalaren webgunean argi eta garbi ikus daiteke	KALITATEA / HERRITARREN PARTE HARTZEA	20	Urtean behin		
3.2. Herritarren zuzeneko informazioa eta atentzia	3.2. Herritarren zuzeneko informazioa eta atentzia	3.1.8	Herritarrengandik edo erakundeengandik jasotako galderari buruzko datuak argitaratzea (guztinez, jasotako eta erantzundako galderen kopurua)	KALITATEA / HERRITARREN PARTE HARTZEA	22	Urtean behin		
		3.1.9	Zerbitzuen katalogo orokorra argitaratzea dago, bai eta erakundearen zerbitzu eta ekipamenduaren egoitzak, helbideak, jendearentzako arreta-orutegiak, eta webguneetarako loturak eta eredu postala elektronikoko helbideak ere	KALITATEA	23	Urtean behin		
		3.1.10	Bere eskumeneko administrazio-prozeduren katalogo eguneratua argitaratzea, helburua, izapideak, epeak eta administrazioaren lissularen esanahia adierazita, eta hala behar denean, elkartutako inprimakiak, bide elektronikoz izapidetzeko modukoak direnak ondo zehaztuta	KALITATEA	24	Urtean behin		
		3.1.11	Udalaren webgunean espazio bat uztea, udaleko alderdi politikoei beren iritzia eman eta proposamenak egin ditzaten	KALITATEA / HERRITARREN PARTE HARTZEA	27	Urtean behin		
		3.2.1	Udal prezio publiko, tasa eta zergak argitaratzea eta eguneratzea	KALITATEA / HERRITARREN PARTE HARTZEA		Aldatzen den bakoltzean		
		3.2.2	Jendaurreko kultur eta kirol instalakuntzen orduleji zein prezioak argitaratzea eta eguneratzea	KALITATEA / HERRITARREN PARTE HARTZEA		Aldatzen den bakoltzean		
		3.2.3	Traficaren egoera zein txitlatu bide-zatiak edota udal zerbitzuen gorabehera buruz webgunean informazioa argitaratzea eta eguneratzea	KALITATEA / HERRITARREN PARTE HARTZEA	25	Etlengabe		
		3.2.4	Webgunean informazio eguneratua argitaratzea udalerriko ingurumen arloko egoerari buruz (airearen eta hots-kutsadura).	KALITATEA / HERRITARREN PARTE HARTZEA	26	Etlengabe		
		3.2.5	Alkatearen agenda instituzionala argitaratzea (webgunean aldi berezi batean)	KALITATEA / HERRITARREN PARTE HARTZEA	3	Etlengabe		
		4.1. Legealdi Plana	4.1. Legealdi Plana	4.1.1	Legegintzaidiko Plan osoa argitaratzea	ALKATETZA		Prestatuko denean
4.1.2	Legegintzaidiko Plan labur bildua argitaratzea			ALKATETZA		Prestatuko denean		

JARDUERA EREMIUAK	GAIKAKO AZPIATALAK	NOLA - GARATU BEHARREKO EKINTZA ZEHATZAK	LEHENTASUN MAILA	NOR - UDAL SAIL ARDURADUNA	UDALEN GARDENTASUN INDIZIAREN (2014 UG) ERREFERENTZIA	EGUNERAKETAREN ALDIZKAKOTASUNA	GARDENTASUN LEGEAREN ERREFERENTZIA	IRUZKINAK
4. Gardentasuna udal plangintzan	4.1.3	Legislatzaldiko Planaren jarraipenari buruzko Txostena argitaratzea eta eguneratzea		ALKATETZAKALITATEA		Urtean behin	6. artikulua: Erakundeari, antolatuzkan eta plangintzari buruzko informazioa.	
	4.2.1	Udal Plan Estrategikoa osorik eta laburbilduta argitaratzea		ALKATETZAKALITATEA	10	Prestatuko denean		
	4.2.2	Dauden sektoreko udal-plan berriak argitaratzea, osorik eta laburbilduta. Urteko eta hainbat urteko planak eta programak argitaratu daude; helburu zehatzak, eta helburu honiek lortzeko aurreikusitako jarduerak, balibideak eta denbora ondo zehaztuta.		ALKATETZA / KALITATEA / UDAL SAILAK	65	Prestatuko direnean		
	4.2.3	Plan eta programa horien jarraipenari buruzko txostenak argitaratzea eta eguneratzea		ALKATEZTA / KALITATEA / UDAL SAILAK		Urtean behin		
	4.2.4	Zerbitzuen prestazioari buruzko inkestak emaitzak argitaratzea (inkestari egon ez bada, berriaz adieraziko da webgunean)		ALKATEZTA / KALITATEA / UDAL SAILAK	34	Urtean behin		
	4.2.5	Finantzatuako zerbitzuen benetako kostuari buruzko informazioa argitaratzea, tasa edo prezio publikoak adierazita		ALKATEZTA / KALITATEA / UDAL SAILAK	49	Urtean behin		
	5.1.1	Onetsitako Udal Aurrekontu osoa argitaratzea, kontu-sail nagusiak zehaztuta, eta beharrezko buruzko informazio eguneratuaz (gutxienez, hiru hilabetean behin).		AURREKONTU ETA ZERBITZU OROKORRAK	78	Urtean behin, onartutakoan		
	5.1.2	Onartutako Udal Aurrekontua laburbilduta argitaratzea		AURREKONTU ETA ZERBITZU OROKORRAK		Urtean behin, onartutakoan		
	5.1.3	Udalaren Osoko Bilkurak edo Gobernu Batzarrek, alkatetxak edota zinegotzi ordezkariek onetsitako aurrekontu aldaketak argitaratzea		AURREKONTU ETA ZERBITZU OROKORRAK	35	Osoko Bilkurak onartutakoan		
	5.1.4	Deszentralizatuako erakundeen, erakunde instrumentalen eta udal-sozialateen aurrekontuak argitaratzea (webguneko atal berezi batean); (udalak horriako erakundetik ez bada, berriaz adieraziko da webgunean)		AURREKONTU ETA ZERBITZU OROKORRAK	36	Urtean behin, onartutakoan	8. artikulua: Ekonomia, aurrekontu eta estatistikan buruzko informazioa.	
5.1.5	Zerga Erantzukizuneko Agintaritza Independentiekin aurrekontuen egonkortasunari buruz egindako txostenak argitaratzea (foronekorrak ez badago, berriaz adieraziko da webgunean)		AURREKONTU ETA ZERBITZU OROKORRAK	37	Urtean behin, onartutakoan			
5.2	Urteroko udal aurrekontuak argitaratzea		AURREKONTU ETA ZERBITZU OROKORRAK	79	Urtean behin			
5.2.1	Urteroko kontuen auditoriaren azken kampa- txostera eta aurrekoak argitaratzea		AURREKONTU ETA ZERBITZU OROKORRAK	80	Urtean behin			
5.3	Udalaren zor publiko finantzaren zehazketa eta aurreko ekitaldiekin erkatuta izandako bilakera argitaratzea		AURREKONTU ETA ZERBITZU OROKORRAK	45	Urtean behin			
5.3.1	Horizaillei ordaintzeko eragiketa komentzialen banankotasunari aurre egiteko neurriak buruzko hiru hileko txostenak argitaratzea (HAP/2012/2015 Ministerioaren Agindua 16.7 art.). (Horrelakorik ez badago, berriaz adieraziko da webgunean)		AURREKONTU ETA ZERBITZU OROKORRAK	44	Urtean behin			
5.4.1	Biztanleko diru-sarrera fiskalen ratioa argitaratzea eta eguneratzea (Zergaren bidezko diru-sarrerak / Biztanle kopurua).		AURREKONTU ETA ZERBITZU OROKORRAK	40	Urtean behin			
5.4.2	Itxialako azken ekitaldiko pertsona bakoitzeko udal gastuaren ratioa argitaratzea eta eguneratzea		AURREKONTU ETA ZERBITZU OROKORRAK	41	Urtean behin			
5.4.3	Biztanleko inbertsio-ratioa argitaratzea eta eguneratzea (aitortutako obligazio garbiak (VI. eta VII. atalburuak) / Biztanle-kopurua)		AURREKONTU ETA ZERBITZU OROKORRAK	42	Urtean behin			
5.4.4	Superbilaren (edo defizitaren) biztanleko ratioa argitaratzea eta eguneratzea (Aurrekontuaren dotutako emaitza / Biztanle kopurua).		AURREKONTU ETA ZERBITZU OROKORRAK	39	Urtean behin			
5.4.5	Autonomia fiskaleko ratioa argitaratzea eta eguneratzea (Zergaren bidezko diru-sarreraren alortutako eskubide garbiak / Aitorutako eskubide garbiak guztira).		AURREKONTU ETA ZERBITZU OROKORRAK	38	Urtean behin			
5.4.6	Ordaintzeko bategi bategi aldiaren ratioa argitaratzea eta eguneratzea (ordaindu gabeko obligazioak x 365 / Aitorutako obligazio garbiak)		AURREKONTU ETA ZERBITZU OROKORRAK	43	Urtean behin			
5.4.7	Kobratzeko bategi bategi aldiaren ratioa argitaratzea eta eguneratzea (Kobratu gabeko eskubideak (I-III. atalburuak) x 365 / Aitorutako eskubide garbiak)		AURREKONTU ETA ZERBITZU OROKORRAK		Urtean behin			
5.4.8	Zoraren bilakaerari buruzko datuak argitaratzea eta eguneratzea, aurreko ekitaldiekin alderatuta		AURREKONTU ETA ZERBITZU OROKORRAK		Urtean behin			
5.4.9	Biztanleko zorpelze-ratioa argitaratzea eta eguneratzea (Pasibo galdagarria (finantzario) / Biztanle-kopurua)		AURREKONTU ETA ZERBITZU OROKORRAK		Urtean behin			
5.4.10	Zorpelze erialboko ratioa argitaratzea eta eguneratzea (Udal Zorra / Udalen Aurrekontu osoa)		AURREKONTU ETA ZERBITZU OROKORRAK		Urtean behin			
5.4.11	Biztanleko azpiegituraren egindako inbertsioaren ratioa argitaratzea eta eguneratzea (azpiegituraren inbertsitutako (6. atalburua) ekitaldiko gastuak (gauzatuak) / Biztanle-kopurua)		LAN ETA ZERBITZUAK / HIRIGINTZA	63	Urtean behin			

5. Gardentasuna informazio ekonomiko-finantzarioan
 (*) Atal honetan jasotako adierazleak herritarrentzat informazio ekonomiko-finantzario ulergarria aurkitzeko gomendatzen oinarrituta daude. Gomeendio honiek Gardentasunerako bilbidea. Ordian agertzen dira eta Gardentasuneraren aldieko Euskadiko Udalen Sarea prestatu du.

JARDUERA EREMIUAK	GAIKAKO AZPIALAK	NOLA - GARATU BEHARREKO EKINTZA ZEHATZAK	LEHENTASUN MAILA	NOR - UDAL-SAIL ARDURADUNA	UDALEN GARDENTASUN INDIZEAREN (2014 U.G.) ERREFERENTZIA	EGUNERAKETAREN ALDIZKAKOTASUNA	GARDENTASUN LEGEAREN ERREFERENTZIA	IRUZKINAK
6. Gardentasuna kudeaketaren eraginkortasun eta erfiduztasun	5.5. Emandako laguntzak eta diru-laguntzak	5.4.12	Hirigintza sarriaren proportzioa argitaratzea eta eguneratzea: Hirigintzaren ondoriozko sarriak / Guztizko sarriak (Hirigintzako sarriak gisa sinatutako kontratuak adieraziko dira webgunean: hirigintzako lizentziak, OTZ, EIOZ, hirigintza-aprobiamendua, lursailak besterentzea, etab.)	ORANJA	LAN ETA ZERBITZUAK / HIRIGINTZA	64	Urtean behin	
		5.4.13	Hirigintzalki eratorritako gastuen ratioa argitaratzea eta eguneratzea / Gastuen aurrekontu osoa	ORANJA	LAN ETA ZERBITZUAK / HIRIGINTZA		Urtean behin	
		5.5.1	Azken aldiaren emandako udal laguntza eta diru-laguntzen zerrenda argitaratzea (zenbatekoa, helburua eta onuradunak).	ORANJA	AURREKONTU ETA ZERBITZU OROKORRAK / KONTU HARTZAILLETZA	73	Hiru hilean behin	
		5.6.1	Azken aldiaren izenpetutako hitzarmenaren zerrenda argitaratzea (izenpetu duten alderdiak, xedea, iraupen-epena, egindako aldaketak, prestazioak egitera derrigorutako alderdiak eta hizartutako obligazio ekonomikoak)	ORANJA	AURREKONTU ETA ZERBITZU OROKORRAK / KONTU HARTZAILLETZA	72	Hiru hilean behin	
		5.6.2	Azken aldiaren izenpetutako mandatuaren zerrenda argitaratzea eta eguneratzea (xedea, aurrekontua, obligazio ekonomikoak eta egindako azpikontratazioak, adjudikatzaileak, adjudikatutako jarraitutako prozedura eta zenbatekoa alpatuta)	ORANJA	AURREKONTU ETA ZERBITZU OROKORRAK / KONTU HARTZAILLETZA		Hiru hilean behin	
		6.1.	Udal zerbitzuen kudeaketari buruz dauden azken txostenak argitaratzea	ORANJA	ALKATEZTA / KALITATEA / UDAL-SAILAK		Urtean behin	
7. Gardentasuna kontratazioan	7.1. Udal kontratazioa	6.1.2	Udal zerbitzuen kostuari buruz dagoen informazioa argitaratzea eta eguneratzea	BERDE	ALKATEZTA / KALITATEA / UDAL-SAILAK		Urtean behin eta adieraziko den adierazikoasunaren arabera	
		7.1.1	Azken kontratazio-mahaien osasera, izendatutako era eta delatidiei buruzko informazioa argitaratzea (webgunean lotura zuzen eta berezi bat jarri informazio hau emateko)	ORANJA	KONTU HARTZAILLETZA / KONTRATAZIOA	46	Kontratazio-mahaiak osatzen diren bakoitzean	
		7.1.2	Kontratazio Mahaien Aklak Argitaratzea	BERDE	KONTU HARTZAILLETZA / KONTRATAZIOA	47	Akta berriak daudenean	
		7.1.3	Azken aldiaren formalizatutako kontratuen zerrenda argitaratzea (helburua, lizitazioaren eta adjudikazioaren zenbatekoa, prozedura, publikitatea, parte hartu duten lizitazioaren kopurua eta adjudikaziodunen norasuna) (webgunean lotura zuzen eta berezi bat jarri informazio hau emateko)	ORANJA	KONTU HARTZAILLETZA / KONTRATAZIOA / ALKATEZTA	68	Hiru hilean behin	
		7.1.4	Azken aldiaren formalizatutako kontratuetan egindako aldaketak argitaratzea (webgunean lotura zuzen eta berezi bat jarri informazio hau emateko)	ORANJA	KONTU HARTZAILLETZA / KONTRATAZIOA / ALKATEZTA	69	Hiru hilean behin	8. artikulua: Ekonomia, aurrekontu eta estatistikari buruzko informazioa.
		7.1.5	Kontratuaren azterea egiteko eta ulio egiteko erabakiak argitaratzea	ORANJA	KONTU HARTZAILLETZA / KONTRATAZIOA / ALKATEZTA		Hiru hilean behin	
8.1. Hiri Antolamendua	8.1.1	7.1.6	Azken aldiaren formalizatutako kontratu bikiak argitaratzea, behintzat, erantsita (kontratu-kopurua, guztizko zenbatekoa) (webgunean lotura zuzen eta berezi bat jarri informazio hau emateko).	ORANJA	KONTU HARTZAILLETZA / KONTRATAZIOA / ALKATEZTA	70	Hiru hilean behin	
		7.1.7	Azken aldiaren sektore publikoko kontratuen legerian ezarritako prozedura bakoitzaren bidez adjudikatutako kontratuen kopurua eta aurrekontu bolumenari buruzko datu estatistikoak argitaratzea (kontratu irekiak, negoziatuak, kontratu bikiak) (webgunean lotura zuzen eta berezi bat jarri informazio hau emateko).	ORANJA	KONTU HARTZAILLETZA / KONTRATAZIOA / ALKATEZTA	71	Hiru hilean behin	
		8.1.1	Udalaren hirigintzako kudeaketaren arloan indarrean dagoen araudiari buruzko informazio zehatza argitaratzea eta eguneratzea (webgunean lotura zuzen eta berezi bat jarri).	ORANJA	LAN ETA ZERBITZUAK / HIRIGINTZA	56	Araudia onartuko denean	
		8.1.2	Hiri Antolamendurako Plan Nagusia argitaratzea	ORANJA	HIRIGINTZA	50	Onartuko denean	
		8.1.3	HAPNeen zehazten diren mapak eta planoak argitaratzea	ORANJA	HIRIGINTZA	50	Mapak eta planoak egongo direnean	
		8.1.4	Onetsi zenetik HAPNri egindako aldaketak eta onetsitako plan partzialak argitaratzea.	ORANJA	HIRIGINTZA	53	HAPN aldatuko denean	
8.2.1	8.2.1	8.1.5	Udalak sinatutako hirigintzako hitzarmenak eta egiten ari diren hirigintzako jarduerak argitaratzea.	ORANJA	HIRIGINTZA	54	Hitzarmenak sinatuko direnean	
		8.1.6	Lurzoruen erabilierari eta xedeei buruzko plan partzialak argitaratzea	ORANJA	HIRIGINTZA	55	Plan partzialak onartuko direnean	
		8.1.7	Abian dauden hirigintzako proiektuen zerrenda argitaratzea eta eguneratzea (garapen-aldiak, abian dauden lanak, kalifikazio aldaketak, hirigintzako hitzarmenak...)	ORANJA	HIRIGINTZA	61	Hiru hilean behin	
		8.2.1	Proiektuen zerrenda, eta herri-hanki garrantzitsuenek lizitatutako hirigintza eta proiektu argitaratzea eta eguneratzea (webgunean lotura zuzen eta berezi bat jarri).	ORANJA	LAN ETA ZERBITZUAK / HIRIGINTZA	57	Hiru hilean behin	

JARDUERA EREMUAK	GAIKAKO AZPIALAK	NOLA - GARATU BEHARREKO EKINTZA ZEHATZAK	LEHENTASUN MAILA	NOR-UDAL SAIL ARDURADUNA	UDALEN GARDENTASUN INDIZATZAREN (2014 UGI) ERREFERENTZIA	EGUNERAKETAREN ALDIZKAKOTASUNA	GARDENTASUN LEGEAREN ERREFERENTZIA	IRUZKINAK
8. Gardentasuna hirigintza eta herri-lanetan	8.2. Herri-lanak	8.2.2 Herri-lanik garrantzitsuenen proiektuetan egindako aldaketak argitaratzea (webgunean ibura zuzen eta berezi bat jarri), (horrelakorik egin ez bada, berariaz adieraziko da webgunean).		LAN ETA ZERBITZUAK / HIRIGINTZA	58	Aldatuko direnean		
		8.2.3 Herri-lanien inbiziak aurriztutako enpresen zerrenda argitaratzea (webgunean ibura zuzen eta berezi bat jarri).		LAN ETA ZERBITZUAK / HIRIGINTZA	59	Lizitazio bat dagoen bakoitzean		
		8.2.4 Hirigintza-lanik garrantzitsuenak egiten dituzten enpresen izena argitaratzea (webgunean ibura zuzen eta berezi bat jarri).		LAN ETA ZERBITZUAK / HIRIGINTZA	60	Adjudikazio bat dagoen bakoitzean		
		8.2.5 Udali obra garrantzitsuenak (500.000 euro baino gehiagokoak) hasieko eta amaizeko aurreikusitako data zehatzak argitaratzea eta eguneratzea		LAN ETA ZERBITZUAK / HIRIGINTZA	61	Hiru hillean behin		
		8.2.6 Egindako azpiagitura-lanik nabarmenak buruzko informazioa argitaratzea eta eguneratzea (webgunean ibura zuzen eta berezi bat jarri).		LAN ETA ZERBITZUAK / HIRIGINTZA	62	Hiru hillean behin		
		8.2.7 Egitikuntza gabe eta onartutako dauden azpiegiturako lanek buruzko informazioa argitaratzea eta eguneratzea		LAN ETA ZERBITZUAK / HIRIGINTZA	62	Hiru hillean behin		
		8.2.8 Arribean dagoen lan bakoitzaren egoerari buruzko informazioa argitaratzea eta eguneratzea (heburuak, udal arduraduna, kontratugileak, aurrekontua, egikaritzea aldia)		LAN ETA ZERBITZUAK / HIRIGINTZA	61	Hiru hillean behin		
		8.2.9 Udaliak ingurumenaren arloan dituen politikak eta programak, eta haien jarraitapen-koostenak argitaratzea.		LAN ETA ZERBITZUAK / HIRIGINTZA	51	Hiru hillean behin		
		8.2.10 Ingunumen- eta paisaia-iripakuei buruzko azterketak eta ingurumeneko osagaiak dagozkien arrikuo ebaluazioak argitaratzea (horrelakorik egin ez bada, berariaz adieraziko da webgunean).		LAN ETA ZERBITZUAK / HIRIGINTZA	52	Hiru hillean behin		
		9. Open Data	9.1. Datu irekien katalogoa	Formatu irekian eskuragarri dagoen udal informazioaren zerrenda argitaratzea eta eguneratzea		ALKATETZA / KALITATEA / UDAL SAILAK / INFORMATIKA ENPRESA		Hiru hillean behin
10. Udal araudi eta hitzarmenak	10.1. Udal araudia	10.1.1 Indarreko udal araudi garrantzitsuenak (ordenantzak, ordenantza fiskalak, araudi, dekretoak, estatutuak eta udal bandoak) argitaratzea eta eguneratzea		ALKATETZA / IDAZKARITZA NAGUSIA / GOBERNU BATZORDEAREN BULEGOA		Araudi berria aterako denean	7. artikulua Garrantzia juridikoa duen informazioa.	
		10.1.2 Tramitatu biltzean jendaurrean jartzeko aldiari darduen dokumentuak argitaratzea		ALKATETZA / IDAZKARITZA NAGUSIA / GOBERNU BATZORDEAREN BULEGOA		Jendaurrean jartzeko tramitea egin behar denean		
		10.2.1 Gobernu Batzarreko akordio osak eta akta osak argitaratzea. Osoko Bilkurak ordezkatzea emanda aritzen denean.		ALKATETZA / IDAZKARITZA NAGUSIA / GOBERNU BATZORDEAREN BULEGOA	15	Gobernu Batzarreko zerbitu erabakitzaren duen bakoitzean		
		10.2.2 Gobernu Batzarreko bilera egin aurretik gai-zerrendak argitaratzea		ALKATETZA / IDAZKARITZA NAGUSIA / GOBERNU BATZORDEAREN BULEGOA		Gobernu Batzarrearen bilera egiten den bakoitzean		
		10.2.3 Gobernu Batzarreko aktak argitaratzea.		ALKATETZA / IDAZKARITZA NAGUSIA / GOBERNU BATZORDEAREN BULEGOA	15	Gobernu Batzarrearen bilera egiten den bakoitzean		
		10.3.1 Udal Osoko Bilkuraren aurreko gai-zerrendak argitaratzea		ALKATETZA / IDAZKARITZA NAGUSIA	13	Udal Osoko Bilkura egiten den bakoitzean		
		10.3.2 Udal Osoko Bilkuraren erabakiak argitaratzea		ALKATETZA / IDAZKARITZA NAGUSIA		Udal Osoko Bilkurak zerbitu erabakitzaren duen bakoitzean		
		10.3.3 Udaleran Osoko Bilkurako aktak osorik argitaratzea.		ALKATETZA / IDAZKARITZA NAGUSIA	14	Udal Osoko Bilkura egiten den bakoitzean		
		10.3.4 Udal Osoko Bilkuraren lehen-entzuzeko grabaketak argitaratzea		ALKATETZA / IDAZKARITZA NAGUSIA	16	Udal Osoko Bilkura egiten den bakoitzean		
		11.1.1 Herri-lanik Parte hartzeko Akudua argitaratzea		KALITATEA / HERRITARREN PARTE HARTZEA	30	Sortzen/datzen den bakoitzean		
11.1.2 Baruldetako edo Auzoetako Udal Batzaren osasera eta funtzionamendua argitaratzea		KALITATEA / HERRITARREN PARTE HARTZEA		Sortzen/datzen den bakoitzean				

JARDUERA EREMUAK	GAIKAKO AZPIATALAK	NOLA - GARATU BEHARREKO EKINTZA ZEHATZAK	LEHENTASUN IMAILA	NOR - UDAL SAIL ARDURADUNA	UDALEN GARDENTASUN INDIZIAREN (2014 UG) ERREFERENTZIA	EGUNERAKETAREN ALDIZKAKOTASUNA	GARDENTASUN LEGEAREN ERREFERENTZIA	IRUZKINAK	
11. Parte-hartze gardena	11.1. Egituratuako programazioa	11.1.3	Barnutiko Kontseleuen azken aktak argitaratzea (edo parte hartzeko dauden beste organo batzuenak). Udako Kontseleuak eta/edo herritarrek parte hartzeko beste-lako bideak daude (hiri-foroak, hirigintzako kontseilu sozialak...), haiei buruzko informazioa ematen da, eta hauen akordioak, txostenak edo proposamenak argitaratzen dira (horrelakorik ez badago, berriaz adieraziko da webgunean).	ALKATETZA / HERRITARREN PARTE HARTZEA	31	Onartuko direnean			
		11.1.4	"Herritarrek udal jardueran parte hartzeari buruzko" azken txostena	ALKATETZA / HERRITARREN PARTE HARTZEA		Urtean behin			
		11.1.5	Herritarren elkarleen zerrenda argitaratzea eta eguneratzea. Webgunean guzuzen bat dago erreserbatuta udalerriko herritarren elkarlanean, eta elkarte horiek egindako galderen edo proposatutako galen zerrenda argitaratzen da.	KALITATEA / HERRITARREN PARTE HARTZEA	28	Urtean behin			
		11.1.6	Udalaren webgunean ezababidaguneak edo sare sozialen profilak argitaratzea.	HERRITARREN PARTE HARTZEA	29	Urtean behin			
		11.2.1	Informazio-aldian aurrekontuari egindako alegazioak eta zuzenketak argitaratzea. Udal-aurrekontuak eta plan ekonomikoak prestatzean, herritarrei aukera ematen zaie parte hartzeko eta iradokizunak egiteko.	AURREKONTU ETA ZERBITZU OROKORRAK / KONTU HARTZAILAZA	32	Urtean behin			
		11.2.2	Indarreko araudiaren arabera herritarrek parte hartzeko prozesuak egin behar diren gaitan herritarren ekarpenak argitaratzea (ad. Hirigintza)	HIRIGINTZA	31	Parte hartzeko prozesuak egiten direnean			
	12. Gardentasunarekiko konpromisoa, zabalikundea eta komunikazioa	12.1. Gardentasunarekiko udal konpromisoa	11.2.3	Herritarren ekarpenak argitaratzea, herritarrek parte hartzeko borondatezko prozesuak egiten diren udal planak eta beste proiektu batzuk aldazten/prestatzen direnean	HIRIGINTZA	31	Parte hartzeko prozesuak egiten direnean		
			12.1.1	Gobernu Oneko Kodea edota Gardentasunari buruzko barneko araudia (ordenantzak, udal araudiak) argitaratzea	ALKATETZA / GOBERNU BAITZORDEA	17	Sortzen/aldatzen den bakoitzean		
			12.1.2	Gardentasunari buruzko Estrategia edo Plana argitaratzea	ALKATETZA		Sortzen/aldatzen den bakoitzean		
		12.2. Formal Kontrolak	12.1.3	Udal gardentasunari buruz herritarrei egindako azken inkestaren emaitzak argitaratzea	ALKATEA / KALITATEA		Urtean behin edo egiten direnean		
			12.2.1	Ahokularitza juridikoko eta ikuskaritzako organoen barneko txostenak argitaratzea, behin betikoak direnean (horrelako txostenik ez badago, berriaz adieraziko da webgunean).	ALKATEA / KALITATEA	67	Urtean behin		
			12.2.2	Kampoko kontrolako organoek (kontuen Auzitegiak edo Ganberak) kontu-ikuskaritza eta/edo fiskalizazio txostenak argitaratzea, hala udalaren nola udal-sektore publikoko erakundearen.	AURREKONTU ETA ZERBITZU OROKORRAK / KONTU HARTZAILAZA	80	Urtean behin		